

TXIPRE

Udaldi honetan Europak irakiten dihardu. Oporjeta garaia izan ohi da udaldia, baina han eta hemen ez da oporjeta-giro handirik sumatzen. Ingalaterran hauteskundeak prestatzen ari dira, eta lanik asko izango dute laboristek. Frantzia, herriz, Giscard-ek egin berri duen hitzaldia ez dute onartu langileek; sindikatoak haserre dabilta gobernaren aurkako agerikundeak antolatuz. Portugalen ere bertako eta kanpoko ekaitzaren menpean aurkitzen dira...

Halaz ere, azken egun hauetan Txipren gertatua oso gogoan hartzekoa da. Makariosen aurka militar talde bat jaiki bazen jaiki, geroztik turkoen eraso dela eta larri asko dabilta Txipren. Turkoek hartzeko erakutsi duten indarrak baliatuz, orain elkarriketarako ere prest daude. Txipren bizi zen turko jendea ahula eta indargabe izanik, kanpotik jaso duten laguntzarik eskerrak, orain indarraren eskubideaz baliatuz tratatutako prest daude.

Nolako izango ote da Txiprenen etorkizuna? Galdera honen erantzuna ez dago txipriota jendearen eskutan. Bertan greko eta turko joerakotako jendea bizi da. Greziak eta Turkiak ote dute azken hitza?

Galbehearen sarea gero eta hestugoa da. Nola Grezia ala Turkia beste nazio indartsuagoen esanetara jarriak daude. Alde batetik, OTAN indarrak, lurralde eta uralde horretako opila guskoa du, eta horiekin batera, ipar amerikarrak indarrak kontrolatu nahirik. URSS-ek ere ez ditu diplomazi lanak alde batera utzi, bere asmo ona erakusteko egokierarik ez du galduta nahi izan. Greziak, bestalde, amerikanoen aurkako hasererik erakutsi badu ere, orain elkarriketari ekin nahi dio. Turboek ez dute pauso baten erdirik atzera egingo.

Hauze da gure galdera: nolako izango ote da Txiprenen geroa? Bere nortasun eta halamoduzko batasunari etsuko ote dio? Federazio baten barruan egindako konponketa bidezkoa ote? Nor aginduko du, hemendik aurrera, Txipren?

Ez da nolana hiezakiz erantzutetik. Haundikien indarra gero eta haundiago dela ikusten dugu. Gero eta zailago da estatu txikiak izaten, eta zer esanik ez estadurik gabeko herrialdeentzat, erabateko askatasunik lortzea. Arrain haundiak txikia iresten duen antzera, estatu indartsuak ahula menperatzen du. Ez da orain kontua, aspaldi erakutsi ziguten eta ikasi behar izan dugun historia baizik. Negargarria, baina egia. Herri batek, Txiprek, ez du bere etorkizuna aukeratzeko, erabakitzeko esubiderik. Hortik aurrera zer esan dezakegu?

Bada hemen gogoan hartuko beste gertaera bat, historian zehar argi eta garbi azaltzen zaituen jokabidea: indarraren arabera erabakitzen dira gauzak.

Turkiak indarpean hartu du Txipre eta ondoren elkarriketarako gogoia erakutsi du. URSSek chekoak menpean hartu zituen eta geroztik menpean jarraitu du. Eta beste adibiderik ere aipa genezake hain urrutira jo gabe. "Gizona gizonari, ote" zioen idazleak asmatu zuela dirudi. Turkoek indarra erakutsi dute eta ez dute amore emango.

Azkenaldi honetan Europak irakiten dihardu, baina ez Europak bakarrik. Vietnam-en Cambayan, Ekialde Hurbilean, Angolan eta bestetan bada borroka eta gerraterik. Bien bitartean ere Txipre hor dago. Indarra nagusitzen den artean nor berek hortik aurrera erabaki beza.

Txiprek eskaini digu lan honetako gaia. Hutsunerik nabaritzen badu, bakoitzak ahal duen bezala osa beza.

MATEMATIKA ETA HEZKETA

Noiznahi eta nolana hiez darabilkigu «matematika» izena. Zer adierazi nahi da hitz horren bidez? Konzeptuak formulatan ematen dituen jakintza soil bat?

Matematika irakaskintza zer du ikustekorik haurraren heziketaz? Ez ote da helburu bakarra, haurra, zenbaki mekaniko batetarako gai izan dadin, laio eta trebe egitea? Izan ere, haurra, zenbaki eta zenbaki lerro luzeagok kalkulok egiteko gai izan, hainbat eta azkarra goi ohi da.

Badrudi, matematika berria delakoak iraultzaile behar duela gertatu. Baina, nor da jabetu matematika berria delakoaren muinaz? Eta esan behar da, muin horretaz jabetzea honelaxe agertuko litzatekeela bakar-bakarrik: haur kreatzitateaz biziizat beteriko irakaskintza oso bat nola molda kezka, larritan bizi delarik.

Nahi eta ezkoa da hau: haurra dela ardatz bizia pentsatzea; haurraren pentsamondeaz, izaeraz eta inguruarekin dituen harremanetaz kezkatutik ihardutea. Ezinbestekoa da hau. Guzti honek kontzientzia praktikoa batetara bait darama haurra. Eta horrek guztiak, egokiera frango eskainiko dio irakasleari matematika ekintzan sartu ahal izateko.

Ezin ahantz daiteke, haurtxoak sinboluak nabari dituela nonahi: etxeko erlojuan, egutegian, paperean, hizkeltaldietan... Eta, jakina, zenbakia zer den jakin baino lehen, zenbakia erabiltzen hasten da; zenbakiaren beharra sumatzen bait du, giroak eraginik.

Haurri, berezko senaz sortzen zaizkio zenbait joera: gauzak taxutzea, pilatzea eta, geroxeago, neurutzea. Garbi dago, haurrak, berek eginiko esperientziak aurkitzen duela konzeptu asko: ordenarena, multzoarena, espazioarena, e.a.

Pedagogia mailan inoiz ere ezin ahaztuzkoa da, haurrak baduela berezko logikotasun bat, eta ekiten ahal diola bere kabuz, tanteoz, esperimentuz, e.a.

Halatan, irakaslearen lana, horretarako giroa antolatzea izango da; bere izaera horretatik haurri sortzen zaizkion joeren ardura bizia duela, irakasleak.

Nolana ere, aberasgarri zaio haurri bere inguruarekin harremanetan jartzea; horrek ematen bait dio bizitzaren ezagutza, aurketzen zaizkion gertaera eta buruhauste-entzen irtenbideren bat berez aurki ahal izateko. Horrela ihardungo da bere pentsabide edo arazoinbideak lantzen.

Problematika guztia irakaskintza osoari loturik dago; eraketa osoa haurra hainbat zatitan hartzeari loturik. Eta dudarik ez da, matematikaren bideak haurraren nortasuna osatuko duen zerbait beharko duela izan.

Haatik, egun matematika irakaskintza den ikusmodua, haurraren pentsabide lantzekoaren aurkako dugu; dena egira eman nahi zaio. Eta ez ote da hori, gure ikastolen dabilta haurren guraso dezenterean pentsamondea bera?

HERRIAREN ARNASA

ZINEMAREN JOERA EROTISMO ETA ESTETIKA

Larresoro

Parisen izana naiz berriki. Eta zalantzarik gabe zinemaren joera, harrigarri gertatzen da hain nabarmen topaturik. Zinemaren aldakuntza, edo zinemaren nabarmenakuntza hobeki esateko, ez baita betiko kontua. Ez, ez. Zinemak porno alde horretara orain jotzen du gero eta lotsagabekiago; eta nekez uka daiteke nabarmenkeria horrek harritu egiten duela. Joera berri hori muga ondoko Miarritze eta Hendaiaiko zinemen joera dela esatea ez da bidezkoa. Europako hiri handi guztietan (hiri handietan, nik uste, txikietan baino gizarte-freinu txikiago delako) joera berbera errepara baitaiteke.

Gaurko modaren arabera mintzatzekotan joera hori gauza «ona» dela esan behar omen da; setu-konf-plejoak galtzen hasiak gabela, kopetaz zabalago gabela, eta abar. Hots, orain dela urtebetez idatzi nuena berretzeko arrikua ezaguturik ere (ikus ene «Olerki eta Ilupe», 1973-III) kontrako neurie iritzia eman nahi nuke aste honetan hemen; eta ahaleen funtsatu.

Aski da Pariseko «Semaine de Paris» erostea, eta zinema-areto guztietako filmen kondua egitea. Hauze egin dut nik artikulua haur prestatzean; eta hona hemen aurkitu ditudan zenbakiak. Aste hauetan 52 filma porno ematen ziren Parisen («sexy-érotiques» alegia, nahiz filma horiek askotan zeharo izan anti-erotiko...).

Kopuru hori handia izanik ere, egia eren parte bat baizik ez du erakusten. «Les Valseuses» filma, esate baterako, «comédie dramatique» gisa agertzen da zinema-astekari horretan; «Toute nudité sera châtiée» delakoa, berriz, «drame» gisa; eta irakurle guztiak ezagutzen duten «Le dernier tango à Paris» famatua, «comédie dramatique» gisa. Hauxe guztiak kondatuz, beraz (alegia, 18 urtetara arte debekaturik daudenak, nolapait bigarren sail hau mugatzeko) beste 77 filma konda daitezke erdi-pornoen artean.

Hitz batez, aste hauetan Pariseko 129 zinematan ematen ziren filmak, edo porno ziren ofizialki («sexy-érotiques» ere erdi-porno bederen.

Edonori gogora datorkion galdera, horretara, hauze da: «liberatu» egin ahal da zinema, askatu alegia; ala «alienatu» egin ahal da? Konplejoak gairitzen ari gara, ala dena gairitu-nahi horretan geure burua beste era batetara txiritzen

eta kateatzen?

Ene erantzuna ez da zalantza-koa: zinemaren joera hori, kapitalista batzuen irabazpide berri izanaz gain, modako alienabide eta desgizabide berri bat baizik ez da.

Errespetu txikiagoa izan behar zaio gizonari (gizasemei buruz hau egia izanik, zer esango emakumei buruz!) zinema-mota hau inoren aberasgarri gerta daitekeela pentsatzeko. Azken funtsean noiztan dira «etxe hetxiak» bisitatzaileen frustrazio-bidez besterik? Non dira mundutar esperentzia apur bat bederen izan eta hauxe aitortzen ez dutenak? Noiz idatzi izan da inon bizioa (eta setu-saiheskeriak bereziki) gizonaren aberasgarri direnik?

Berriro ere aipatuko dut arabitar olerkari haren esakun zorrotza: «setusatusuna bera abiatuz geroztik, erotismoa kitto». Hots, arabitar olerkari hark gizona eta amodioa zer diren ongi zekien; baina pornoak ezeren «gairide» izan daitezkeela uste dutenek ez er ez dakeite gizonaren egiazko egarriaz, ez ta egiazko Eros-er ere. Ezen Eros ez baita (eta hau esanez Marcuse-ekin ados mintzo naiz) setusatusuna bakarrik; baina, Freud-egandik hurbilago, Bizi-Sena eta Estetika-dohaina ere bai.

Erotismoa eta Estetikaren ahalmena elkarri hertsiki loturik dauden bezala, setsukerik eta heriotza ere loturik daude ez laxokiago. Gizona ez baita gorputza bakarrik.

Epikteto estoikoaren esakun bortitza onartu behar izan ez arren («arrastaka eta nekez gorpu bat daraman arima ahul hauskor bat baizik ez haiz hi»), mendetan barrena geure kuntzetik atera gaituen ideia zentzugabea arbutatzen badugu ere (alegia, «haragia gizonaren etsaia eta galbidea» dela), hau esan daiteke eta esan behar da: sakonta-

sunik eta sendimendurik gabeko setu-harremanak gizonaren trista-garri direla, eta ez ezertan ere ezere «gairide»-a. Zinemaren joera pornoa, hortaz, eta alderdi horretatik, joera kaltegarria da, eta gizonarekiko laido eta irain.

Platonismoaren ideakeria salatu ahal izateko (eta salatu egin behar da), beste muturreko porno-aldi fursgabe hau ere salatu beharra dago. Gizona ez baita arima hutsa, baina haragi-hezur hutsa ere ez; eta erotismoak ezere gutxi baitu ikustekorik mekanikarekin.

Erotismoa, obratu aurreko amodio-giro berezia, maitasun hozitu berriaren Eros-aldia, baita barne-hutsune soila denean ere, baita olerki-egarri zorrotzaren pizgarri bakarra denean ere, baita ez-aren dei etsia denean ere, baita egiazko maitasun osoa ez denean ere, Olerki da, eta Eder-men, eta Arte-gun, eta gizonaren barne-berasgarri gardenena eta zinezkoena. Sendimenduan eta olerkian funtsatutako harremanen askatasunaren alde, berriro ere Marcuse-ekin batera, esango nukeen gutzi-guztia, sendimendutik eta olerkitik at tratatuko tximukeria horien aurka esango nuke zinki. Eta tximuek barka nazatela...

Zinema pornoa, gizonaren sakontasunaren uko zabarra eta zozoa den aldetik, gaurko gizartearen txirrogari nabarmen iruditzen zaif. Eta gizasemearen, emakumearen eta maitasunaren beraren txirrogaria den aldetik nahi nuke berriro ere eta osoki lerro hauen bitartez gaitzetsi.

Goethe-ren «Werther» eta Hamsum-en «Pan» liburua zoragarrien irakurle liluratu izan naizen hau, zinema porno horrek nardatu egiten nau, jaunok. Benetan. Zu ez ala?

LARRESORO

KIROL ZALEEI GUTUN IREKIA

Kirol zale eta euskal zale zaitugun horri, agur:

Une honetan ez dugu kirol giroa aztertzen hasteko asmorik. Kirola berez ona ez ezen beharrezkoa dugu. Betidanik erakutsi du gizadia kiroleterako joera eta ez gintezke behar honen aurka hasi.

Azkenaldi honetan, bestalde, kirolak besteretzen gaituala, gure nortasuna desegiten duela eta, izan dira zenbait kirol leihaketauren aurkako ekintzak. Kirola ez baita bere garbitasunean bizi, gauza gero eta nahastugogoten bait doaz.

Kirol zale eta euskal zale zaitugun horri idatzen dizut. Oporjeta hauetan serio demonio pentsa dezazun eskatzetan dizut ni ere kirol zale bait nauzu.

Baina zein da kirol saioetan erabiltzen den hizkuntza? Kirol jokoa agertarazteko nolako hizkuntza erabiltzen da? Ze hizkuntzatan azaltzen dira iragarki edo kartelak? Zure herriko giroa gogoan izanik pentsa ezazu apur bat.

Euskal kirolak, adibidez, erdera hutsaen argitaratutako iragarkietan aipatzen dituzte: Estropadak, apostuak, toka sariketak, eta abar. Aurten, adibidez, Erreterian jaitan antolatuta dena baino ez dut aipatuko, kartelak erdera hutsaen egin dituzte, erdera batuan, Pello Kirten aurkezle edo presentadore delarik. Zer derizkiotze?

Futbol zale zeran horrek, partido jokalditako kartelak erdera hutsaen ateratzen utzi behar ahal diezu? Ohitura bat dela? Garrantzirik gabeko gauzak direla? Ez, noski, egiazko euskaltasunaren arabera. Zorionak benetan donostiar futbol talde nagusiari. Izena euskalduna ez duten arren izanik besterik erakusten du. Atotxako zelaian gertatzen diren partiduen berri gutxienez bi hizkuntzetan adierazten bait zaigu.

Mendizaleen taldeak ere ez dakit zulo berdinean ez ote diren erortzen. Txirrindularen, esku baloi-zaleen elkarteak eta abar zer esanik ez.

Gauza serioa da hau txantxetan ibiltzeko. Huskeriak direla eta gure euskaltasunean amore ematen badugu gureak laster egingo du.

Ondarrun, Zornotzan, Durango, Azpetian, Arrasaten, Zarautzen, Donoezteben, Iruñean, Donibane Lohitzunen, Donibane Garazin, Baionan... ez ote azalpen hauek euskeraz egiteko gai izango?

Ba ahal gara, bai ala ez?

MIKEL UGALDE